



Astekaria



elgoi



LIII. MUGERZA KROSA

Onenak Elgoibarren



SEGUROS

Migel Angel Canales

Agentea

San Frantzisko 42 - Tel. 74 28 64 - ELGOIBAR

**Zorionak
eta
Urte Berri on!**



sake

KOPERATIBAK

*eskaintza
berezia!*

INEKO

NEKAZAL DENDA

ELGOIBAR

Egurrezko ezolak enkarguz!



PRODUKTUA	PREZIOA
Txarrantxa erizo 17-4-10 (250 m.)	3.200 pta.
Txarrantxa lowa 13-8 (250 m.)	3.980 pta.
Ardi sarea 100-8-15	7.995 pta.
Ardi sarea 100-8-30	6.695 pta.
Plastif. 3-1m rollo 25m.	6.000 pta.
Oilo sare 1m-50 rollo 10m.	2.450 pta.
Oilo sare 1m-50 rollo 25m.	4.300 pta.
Urkilak 18x30	345 pta./Kg.
Iltzeak (neurri guztiak)	250 pta./Kg.



URTE BERRION!

San Frantzisko 24, behea - ELGOIBAR - Tel: 74 07 62

Itziarko industrialdea E-13 ITZIAR - DEBA / Tel: 19 93 00 - 19 93 30 / Faxe: 19 92 70

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegi, Pello Arrieta, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Amaia Gorostiza, Maite Iriondo, KOKOE, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Javi León, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:


Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Gure hizkuntzaren egoera

Gure herrian badira: Udalean Euskara Batzordea, euskara teknikaria eta Udal Euskaltegia, Elgoibarko Izarra, Ikastola, AEK. Hala ere SIADECO-ren arabera Elgoibarren euskararen erabilpena baztertuta dago gizarte bizi-tzan.

Irakaskuntzan euskarazko ereduen pisua garrantzitsua izan arren ikasleen artean erabilpena txikia da eta interes falta somatzen da. Gainera, eskolara euskaraz ikastera bialtzen ditugun umeak gero, kirola eta musika ikastera maisu erdeldunekin bialtzen ditugu. Eta gainera gurasoek erderaz egiten diegu berba neurri haundi batean.

Udaleko bulegoetan gutxi egiten da euskaraz eta zinegotzien bileretan erdera nagusi. Udalak euskararen ordenantzak onartu ditu baina herrian apenas inork dakien zertara behartzen duten, eta sarritan ordenantzak betetzen ez dituzten ekintzak burutzen dira gure herrian: azken froga, Zirkoa etorri herrira eta emanaldia iragartzeko altabozak erderaz bete-betean gure herri guztian zehar.

Anbulategian eta San Lazaron, mediku eta erizainek erderaz barra-barra.

CORREOS y TELEGRAFOS delako horretan euskalduntze plangintza ez izateaz gain, (inprimaki, zerbitzua,...) iragarki erdaldun peto-petoa ezartzen digute, inoren erro-pak urratu gabe.

Komunikabideetan erdal medioen nagusigoa erabatekoa da, Elgoibarren bezala Euskal Herri osoan. Sortu ditugun herri komunikabideetan dauka euskarak presentzia, baina komunikabide hauen eragina zenbaterainokoa den aztertu beharrean gaude: BARRE-

Nen, garrantzia handia izanik, Elgoibarko irudi "ofizialaren" boletina izateko arrisku-pean bizi da, herriko hainbat sektorearen arazoek kabida gutxi izaten baitute bertan. ZAZPIKI irratia, berriz, guztion utzikieriaz, herrian oso eragin gutxi daukan medioa bihurtu zaigu.

Guzti honekin batera, Elgoibarren oso jende gutxi ikasten du euskara pertsona helduen artean. Datu benetan adierazgarria eta kezkarria hizkuntzaren normalizazioan.


Norbaitek esango du, gauzak egiten ari direla, eta bagoazela poliki aurrera. Bada, garbi izan dezagun: egiten dugun horrek euskararen erabilpen maila bajuari aurre egitea ez du lortzen, eta gainera ez dakigu noizko lor daitekeen.

Kontuan hartu behar dugu Hizkuntza Politikaren lerro nagusiak goiko erakundee-tan erabakitzen direla eta horko kontsent-suek mugatzen gaituztela. Gure herrian bertan ere, bide bera jarraituz, euskarak azken-goia izaten jarraitzen du ("kontuz, euskar- hainbeste gastatzearekin!").

Historian zehar jauntxoek eta estatu mandatariek jarri dute euskara gaurko egoera minorizatuan. Gaur Euskal Herrian euskaldun herritarrak ezezki kanpotik etorritako erdaldun piloa ere bizi da, eta hizkuntzaren arazoa gutxiengo baten kontua bihurtarazi nahi dute askok eta askok. Gure esku dago kemenez eta ausardiaz euskara berreskuratu eta nagusi bihurtuko duen politika sortu eta butzatzea. Hala bedi!

Juan Mari Mendizabal

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Bi aparkaleku okupatzen duten autoei zegatik ez diete udaltzainek isunik ipintzen? Udaltzainen sarjentuarekin egon gara eta berak esan digunez errua norena den jakitea ez da batek ere erraza izaten. Batek gaizki aparkatzen badu ondorengo guztiak gaizki aparkatzera derrigortuta daude eta ezin da jakin errua non hasi den.



KEXAK

Hogeiren bat emakumek etabeste horrenbeste gaztetxok kexa bera ekarri digute. Abenduaren 30ean Kiroldegian izan behar zen dantza saioa suspenditu egin zen ordu berean futbol partiduak ipini zituztelako. Kexa futbola ipini zutenei zuzendua dago.



TXALOKAK

Emakume batek deitu digu Takolo, Pirrux eta Porrotx Herriko Antzokira ekarri zituztenak txalotzeko. Benetan polita izan omen zen ikuskizuna eta datorren urtean ere berriz ekartzeko eskaera luzatu nahi du.

ESKUTITZAK

Azken hitza herriak

Joan zen hilaren 17an, azken 100 urtean Euskadi gure aberri bakarra dela uste dugunontzako askatasun erreferentzia den Gernikako zuhaitzaren aurrean zera adierazi genuen:

1- 1979ko urriaren 25ean Euskal Herriak onartu zuen Autonomi Estatutuaren balioa eta garrantzia. Balioa, gure Herriari indarrez kendu zitzaion boterea berreskuratzeko tresna izan zelako. Garrantzia, bere garapen osoak, autogobernuaren bidezidorretik aurrera jotzea gauzatzen duelako. Gernikako Estatutuari eta Kontzertu Ekonomikoari esker Euskadik bere etorkizunaren erakuntzan pauso sendoak eman ditu.

2- Estatutua onartzeak, euskaldunon gehiengo nabarmenarentzat batasun eta kontsentsu leku bihurtu zela aitortu zen.

3- Gernikako Autonomi Estatutua herriak botoa emanez onartu zuenetik hamasei urte pasa diren honetan etengabeko betetze eza aipatu beharra daukagu. Kulpazko ez betetze hau ez da bakarrik gobernuaren eskutik etorri, Estatu-ko beste zenbait erakundek ere badute ardura galanta.

4- Berriro gure abertzaletasuna aldarrikatzen dugu. Guretzat Estatutua, burujabetza neurri baten berreskurapena da baina baita ere demokraziatzko jokoa- ren arauak onartzeko oinarria, era honetan edozein motatako indarkeriari uko eginez eskakizun oro bide demokratiko-etatik azaltzeko aukera izateko.

5- Badakigu euskaldunon gehiengoak onartu zuen Estatutua zenbait sektorek ez duela onartzen. Alde batetik, eskuinekoek, Espainiako batasun nazio-

nalaren haustura ikusten dutelako Estatutuan. Bestetik, bere buruaz, Euskal Herriaren benetako ordezkariak duela eta Herriarentzat proiektu politiko koherente bakarra duela aitortuz dabilen erakunde armatu baten inguruko gutxiengo erradikala.

6- Guk, euskal abertzaleok, gure indar guztiakin baztertzeko indarkeria. Orain ehun urte jaio ginen Herri hau zerbitzatzeko, ez menperatzeko. Ehun urtean mila arazo sufritu eta gainditu ditugu. Diktadurak, intolerantzia eta indarkeriak lehertuko diren harkaitza izaten jarraitzea tokatzen zaigu.

Gure sorreratik eduki dugun zeregina horixe izan da eta gainera arduraz jarraitzen dugu hori onartzen, gure herriari egin dakioken zerbitzurik onena horixe dela uste dugulako. Herriak duelako azken hitza.

GORA EUSKADI ASKATUTA

Elizaz deskidetzeko

Dirua eta gehiegikeria nagusi diren bake faltuzko egun hauetan aurkitzen garela aprobetxatuz, Eliza Katolikoaz deskidetu nahi duten pertsonak animatu nahi ditugu. Erraza da: Donostiako Gotzaitzegira eskutiz bat bidali behar da, Elizatik deskidetu zaitzaten eskatuz, eta horren adierazgarri, orri beraren kopia bat -sinatua eta zigiluarekin- bidali diezazuten esan. Era honetara, haiek jakinaren gainean gelditzen dira (zerbait bada behintzat) eta zu haien lista sailduetatik ezabatua gelditzen zara.

Elizaz Nazkatutakoen kolektiboa

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Honako erretratu polit hau **Nieves Orbeak** ekarri digu. Argazkiaren data ziur esaterik ez dago, baina Nievesen esanetan “gerra aurrekoa da, 1925ekoa edo”. San Lorentzo auzoko Mokoroa baserriko atarian aterata dago erretratua. Jai arratsaldeetan karta jokoan egiteko ohitura ei zuten auzotarrek eta horretan ari ziren batean harrapatu zituen argazkilariak. Jantziak ikusgarriak dira. Gaur egun jai berezietan

bakarrik jazten ditugun arren baserritar arropak, badirudi sasoi hartan eguneroko jantzia zela. Detaile modura, jokoan ari direnen atzealdean garo zuhertzak ikus daitezke.

Argazkiko salorentzotarren izen-abizenak, ezkerretik hasita:

Migel Arozena (†) **Gibraltar baserrikoa**, **Josefa Etxaniz** (†) **Arostegi baserrikoa**, **Libereta Aranbarri** (†) **Unastegi Errota baserrikoa** eta **Juan Egia** (†) **Mokoroa baserrikoa**.



BATAIO
ETA
JAUNARTZE
JANTZIETAN
ESPEZIALISTAK

Errosario 21 74 17 15 ELGOIBAR

Ilusioz beteriko gaua

Ilusioz beteriko gaua izaten da urtarrilaren 5a ume askorentzat. Arratsaldean, kabalgata ikusi eta goizo afaldu ondoren, zapatak garbi-garbi utzi, leiho ondoan jarri eta amets goxoz oheratzen dira, urduri, hurrengo eguna noiz iritsiko zain. Ia hilabete lehenago hasten dira

erregeei zer eskatu nahi dieten pentsatzen eta Gabon garaian sartu orduko, amari eta aitari Olentzero eta Erregeak etortzeko zenbat lo egin behar den galdetzen hasten dira. Haur askorentzat, gaurko gauean bisitari bereziak izango dituzte etxean, magikoak.

Aitziber Calcio Del Pinok 6 urte ditu eta berak Baby Mio izeneko panpina eskatu die erregeei, "negar egiten du eta begietatik malakoak ateratzen zaizkio". Kontatu digunez amak idazten die Erregeei eskutitza bere partez. Beste haur askok bezala, Aitziberrek ere badu guztien artean erregerik maiteena, "Meltxor". Txikitan amak berarengana eraman ninduen eta bera da gehien gustatzen ziadana. Berari ematen diot nere eskutitza". Urtero joaten da Erregeengana, "behin esan zidaten urte hartan piskat geizki portatu nintzela eta ikatz zati bat ekarri zidaten. Baina jatekoa zan!".

Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, etxeko salan, Gabonetako zuhaitzaren ondoan zapatila jartzen du, garbi-garbia. Aitortu digunez



"Gustatuko jatan Errege izatia baina ezin da ze Erregiak ez dia hiltzen eta gu bai"

Mikel

"Baltasar ez da beltza, margotuta dago ze behin mantxa zuri bat ikusi nion aurpegian"

Aitziber



ondo egiten du lo gau horretan, "baina gero goizian goiz esnatzen naiz, jaiki eta gurasuak esnatzen ditzut salara jun aurretik". Olentzerok opari bat ekartzen dio eta Erregeek beste bat baina Erregeak ditu gustukoen, "eurak urrutitik etortzen dira, dana hondarra dan toki batetik eta ez daukate urik. Lehenengo ganbeluan, gero kotxez, gero hegazkinez eta Elgoibarrera zaldiz etortzen dira".

Ba al dakizu zertara etortzen diren Erregeak, Aitziber? "Bai, neskak eta mutilak txintxoak izan diren ala ez esatera". Aitziberrek ez du Errege izan nahi, "nik pelukera izan nahi dut" baina hiruretako batekin zaldi gainean ibiltzekotan, Baltaserrerekin aukeratuko luke. Gainera,

berak badaki zergatik deitzen zaien Errege Magoak, "hega eginez, gure etxetako leihoetatik sartzen direlako, zapatila gainean opariak lagatzerara".

Nola? Hegan

Izaskun Esnaolak, berriz, haunditan modelo izan nahi du eta sei urte izanik ere bere bokazioa argi duela erakusteko Erregeei, "tokadore bat" eskatu die. Izaskunek ere urtero ilusio handiz idazten die eskutitza Erregeei, "marrazkiak dituen orri batean" eta gero, "Gaspar-eri ematen diot, berak ezagutzen nau eta". Ikatzik sekula utzi ez diotela esan digun arren, aitortu digunez, "batzuetan nahiko gaiztua izaten naiz"

"Zaldientzat ura eta Erregeentzat gailetak lagatzen ditzugu. Dana jaten dabe"

Izaskun



Erregeak ekialdetik Santa Klara datazela esan digu eta urtarrilaren 5ean, etxeko zapatilarik berrienak sukaldeko leiho aurrean jartzen dituela. Ondo egiten omen du lo, “begiak itxita. Nahiko nuke Erregeren bat ikustia erregaluak lagatzen baina sekula ez naiz esnatu”. Ama eta aita esnatzen dira lehenengo eta tanborraren soinua imitatuz, Izaskun eta bere ahizpa esnatzen dituzte, “zapatilak erregaloz beteta egoten dia sukaldian. Erregiak boltsa haundi batean ekartzen ditxue, hegan”. Opariak jasotzea gustatzen zaio eta, “ez litzaidake gustatuko Errege izatia ze bestela nik ez naban erregalorik jasoko”.

"Umetxuak pozteko"

Mikel Galarzak bi eskuetako behatzak luzatuz jakinarazi digu sei urte dituela. Berak, neskek ez bezala, Baltasar Erregeari idazten dio urtero eskutitza. Berak aukera-tzen ditu zein opari jaso nahi dituen eta amak eta Olatz arrebak lagun-tzen diote idazten. Kabalgata egunean fin-fin joaten da Plazara, “Baltasar Erregian gainian jarri, galdera txiki batzuk eitzen dia gero karameluak eman eta bajatu eitzen naiz”.

Formala dela esan digu baina bera ezagututa noizean behin trastadaren bat ere egiten duela antzeman daiteke. Halere, ikatzik ekarriko dioten beldur ez da, ez Erregeek behintzat, “ikatzia Olentzerok ekartzen dau!”. Mikelek “El Zoo de Pin y Pon” eskatu omen dio Baltasari baina, “igual beste gauza batzuk ere ekarriko dia”. Aurten Mikelek kabalgatan parte hartuko du, “Erregien onduan jungo naiz, baserritxar jantzita”. Hiru Erregeak “gatzelutik” omen datoz Mikelek esan digunez, “urruti-urrutitik, ume-txuak pozteko”.

Gauean, salako leihoa irekita uzten dute, Erregeak sar daitezen, “eta sukaldetik salarako bide guzti-

xa zikin-zikina lagatzen dabe, zapaten markekin”. Mikelen etxean, gainera, tratu berezia jasotzen dute, “beltzari ardaia ipin-tzen diogu, zurixari esnia eta marroiari txanpana. Jateko pastak eta gailetak. Zaldixeri ezer, ze zaldixak ez dia sartzen barrura”. Mikel laugarren pisuan bizi da eta bertaraino “hegan ixotzen dia ze majikuak dia”.

Sekula ez da gau erdian esnatu, “behin zaratia entzun naban baina ez nitzan jaiki ze bestela igual alde egingo zeben”. Hurrengo goizean, urtarrilaren 6an, “poz-pezik jaikitzen naiz”.



BARREN sariak 95

Abenduaren 22an burutu zen Kultur Etxean BARRENEK Kirol Zerbitzuaren laguntzaz urtero antolatzen duen BARREN sariak 95 eta KirolBARREN 95 ekitaldiak. Lehendabizi kirolaren eragin sozialari buruzko mahaingurua izan zen, Jose Luis Korta Orio arraun taldeko patroia, Jokin Errasti pilotaria, Jon Odriozola Gewiss taldeko txirrindularia eta Joseba Etxeberria Athletic-eko futbolari elgoibartarra hizlari izan zirelarik. Ondoren 1995. urteko kirolari onenaren izena eman zen ezagutzera. Joseba Etxeberria aukeratu zuen epaimahaiak urteko kirolari onena. Epaimahaiak Angel Garate futbolari ohiak, Constan Nuñez Correoko berriemakak, Gotzon Arrieta Euskara Batzordeko presidentek, Carmen Perea iazko irabazleak eta Alberto Agirreazaldegi BARRENEko zuzendari ohiak osatu zuten. Partehartzaileek CalcuMecano etxeak emandako boligrafoa eta Txankakuak emandako 5.000 pta.ko eros-txekea jaso zituzten. Segidan, BARREN sariak banatu ziren.

Barren sariak:

1- Kolaboratzaileen sailean, Baserriko gehigarria egiten laguntzen duten Asier Albizu eta Agustin Irustak jaso zuten BARREN saria.

2- Publizitatean INEKO etxeak merezi izan zuen saria. Saria ematen Nekane Etxaniz BARRENEko publizista eta jasotzen INEKOk Ainhoa Urbieta eta Mila Osa.

3- Herriko elkarteetan atalean, Musika Bandari 110.

urteurrena zela-eta eman zion saria Elgoibarko Izarrako presidentek, Inaxio Garmendiak Jose Antonio Osoro zuzendariari.

4- Erakunde laguntzaileari dagokionean, Eusko Jaurlaritzari eman zitzaion saria. Saria ematen Alberto Agirreazaldegi BARRENEko zuzendari ohiak eta jasotzen Jokin Azkue Herri Administrazioen Hizkuntza Politikarako zuzendaria.



KIROL BARREN

1995eko
kirolari onena

1- Ezkerretik hasita, **mahainguruko hizlariak:** Joseba Etxeberria, Jon Odriozola, Jokin Errasti eta Jose Luis Korta. Hauen aldamenean Jose Mari Apaolaza Euskadi Irratiko kazetaria moderatzaile lanetan.

2- KirolBARRENen, atletismo elkarteak aurkeztu zuen hautagia, **Gorka Sanchez** saria jasotzen Jon Odriozola eta Txankakuaren odeskariaren eskuetatik.

3- **Arkaitz Martinez**, txirrindularia.

4- **Joseba Etxeberria** izan zen garailea. Alboan Txankakuako ordezkaria eta alkatea.

5- **Gorka Garate** judokari

Jon Odriozolak eman zion saria.

6- **Ines Segura** igerilariaren izenean bi lagunek jaso zuten saria.

7- Sari banaketan parte hartu zuten **kirolari guztiak**. Falta dira: Patxi Arriola ehiztaria eta Oscar Díez areto futbolero jokalaria.

8- **Jabier Arriola** "Egi" herri kirolen ataleko hautagaia izan zen.

9- **Juan Carlos Mancebo** karateko hautagaia, Txankakuako ordezkariarekin eta Jose Luis Kortarekin.



1



2



3



4



5



6



7



8



9

Zer desio betetzea nahiko zenuke 1996an?



JOSE MARI URBIETA

55 urte, mantenuko arduraduna

Ekonomixia piskat mejo-ratzia nahiko nuke. Ia urte berrixa hobia dan. Ostan-tzian, familixan eta osasu-nian ondo nauanez...



ISABEL ELORZA

33 urte, irakaslea

Berezirikan ez dot esango ze beste urte batzuetan izandako asmuak gero ez ditxut bete izan: osasuna zaindu, tabakua piskat gi-txio erre...



INMA ARRIZABALAGA

28 urte, langabetua

Oporretan jutia batez ere, iaz, lanian egon nitzan eta ezin izan nitzan jun. Eta familixiakin egoteko den-bora gehixo ere nahi nuke.



DORLETA LOIOLA

9 urte, ikaslea

Gehixo jolastia, telebista ikusi eta anaixakin burru-ka gehixo eukitzia. Beste-la, formala naiz eta etxian amatxori nahikua lagun-tzen diot.



JUAN MANUEL MORILLA

52 urte, gidaria

Ez dakit ba, lana badau-kat, ez dut erretzen... Neretzat 1995a urte ona izan da beraz, 1996rako, gazteentzat lan gehiago egotea nahi nuke.



FLORENTINO BARRASA

39 urte, mekanikoa

Iaz erretzeari utziko niola esan nuen baina oraindik ere erretzen jarraitzen dut. 1996a 1995a baino oke-rragoa ez izatea nahi nuke, ez da gutxi!

okindegia eta gozotegia

ROTERO

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

*Eskulanean
saiazen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

TXURI BELTZ

Taberna

San Frantzisko 38



Elgoibarko Irrati Zaletuen Elkarteak GAREk, Irukurutzeta gainetik egindako irrati-lehiaketaren sari banaketa egin zuen joan den hilean. Delako ekitaldian 2.701 irrati-kontaktu izan zituzten Euskadi, Espainia bai eta atzerriko irratizaleekin ere. Ekitaldi hauen helburua GAREk bidalitako uhinen hedapena jakitea da. Uhinak jaso dutenen ziurtagiria GAREko kideen eskuetara heltzean, hauek diploma bat bidaltzen diete haiei. 1996an antzeko ekitaldia antolatzeke asmoa dute 650. urteurrena eta Kilometroen ospakizuna dela-eta. Argazkian ezkerrean, GAREko Luis Segundo, irrati-emisora Eibarkoa zen irabazleari ematen.

Txirrindulariren Lagun Taldeak

antolatutako Gabonetako zozketa berezian zeuden bi sarietkao bat Goyo Gonzalezi tokatu zitzaion. (Argazkian Tomas Salegi Lagun taldeko kidearekin agertzen da). Lehen saria errepideko bizikleta bat eta Gabonetako otar handi batek osatzen zuten. Bigarren saria plazentziara joan omen da; mendiko bizikleta eta otarra txikiago bat zen.



Juan Mari Mendizabal, EKBko zuzendari

Juan Mari Mendizabal elgoibartarra, Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) deritzon elkarteke presidentek izendatu berri dute. Mendizabalek 40 urte ditu eta betidanik aritu da lanean euskalgintzan, hasieran Elgoibarko AEKn, ondoren Gipuzkoako AEKren koordinatzaile eta iragan apirilietik EKBn. "Bi urterako izendapena izan ohi da" adierazi digu Mendik, eta "aurrerantzean lan zaila eta ardura handiak izango ditut, oraindik asko baitago egiteko euskalgintzan". EKBk euskararen munduan lanean diharduten herri ekimenak koordinatzen ditu. Helduen alfabetatzeari dagokionean besteak beste, bertan biltzen dira AEK, Donostiako Ilazki eta Urrats euskaltegiak, komunikabideen artean Egunkaria, Jakin eta Argia; Udako Euskal Unibertsitatea, Nafarroako Oinarriak mugimenduak bai eta hainbat pertsona ere.

Altzolako zozketa

Altzolako parrokiaren aldeko Gabonetako zozketan 661 zorbakia izan zen saritua. Abenduaren 21eko ONCEko zozketan ateratako zorbakia zen. Honen jabea Begoña Landa altzolatarrak da eta hortaz, berak irabazi du saria.

HEMENDIK BODEGA

AFARI MERKEAK
Gure berezitasunak:

- Kazuelatxoak
- Olagarroa
- Haragia erreta

Ondo pasa Gabonak!

Pedro Muguruza 20. Tel. 74 25 00 ELGOIBAR

KAFETEGIA

Santa Ana, 6. Tel. 74 25 20

GARAY

HARATEGIA
INDAITEGIA

San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

■ Bandaren kontzertua

Udal Musika Bandak Errege eguneko kontzertu berezia emango du hilaren 6an, larunbata. Goizeko 10,15etan kalejira eskainiko dute eta segidan San Lazaro egoitzan joko dute. Eguerdiko 12,30etan Herriko Antzokian kontzertua hasiko da "Bellas Artes", "Bocaccio", "En un mercado persa", "Aida" eta "Moment for Morrienne" obrak joko dituztelarik.

■ Kontsumitzaileei zuzenduriko liburuska

Kontsumitzaileen Informaziorako Udal bulegoak tindategiei buruzko gora-beherak eta argibideak eskaintzen dituen liburuska bat banatu du etxez etxe. Arropak tindategira eramanez aurretik, liburuskak ematen dituen aholkuak irakurri eta berauek jarraitzea komeni da, arazorik sortuz gero zein pauso eman jakiteko. Oraindik eskuratu ez duenak azoka plazako Kontsumitzaileen bulegoan jaso dezake argitalpena.

■ Grabatu kalkografikoa

Egur Arte Tailerrak grabatu kalkografikoari buruzko ikastaroa emango du hilaren 11tik 31ra bitartean. Hogeita hamar orduko iraupena izango du ikastaroak. Izena emateko Ubitarte Plazan duten egoitzaatik agertu arratsaldeko 6,30etatik 8ak arte.

Elgoibarko Izarrako Atxutxamaika

begirale taldeak antolaturiko "Larunbatero" egitasmoan 41 haur ibili ziren. Zortzi larunbatetan eskulanak, jolasak, sukaldaritza eta irteera ezberdinak egiteko aukera izan dute. Begirale taldekoen esanetan ederki pasa zituzten haurrek larunbatak. Martxo aldera, Larunbateroko bigarren txanda antolatzeko asmoa dute Atxutxamaikakoek.



Udal Musika Bandak Gabon Eguneko kalejira berezia ezin izan zuen eskaini abenduaren 24ko iluntze aldera euri zaparrada zela eta. Duela 111 urte hasi zuten Gabon Egunean kalejira egiten eta urtero-urtero berritzen da tradizioa, hutsik egin gabe nahiz eta aurtien Udaletxeko arkupeetan aritu behar izan zuten .



Takolo, Pirrutx eta Porrotx

pailazoekin barre algara ugari egiteko aukera izan zuten herriko haurrek. Udal Euskara Zerbitzuak amaitzean dauden Gabonetako oportetean antolatu zuen pailazo ikuskizuna. Kolore deigarriekin eta gidoi eta euskara errazean, haurrekin eta hauek laguntzen zituzten gurasoekin erraz konektatu zuen hirukote barregarriak.



San Lazaro egoitza ekintzak burutzen ari da nagusien omenez

San Lazaro egoitzak nagusiei eskainitako astea burutzen dihardu aste osoan zehar omenaldi moduko bat eskaini nahian. Era guztietako ekintzetan parte hartu eta beste horrenbeste ekitaldirekin gozatzeko aukera izan dute San Lazarokoek. Txokolatada, Gelatxorekin dantzaldia, bingoa, hitzaldia, pelikulak,

musikeskolakoen saioa, Haritz eta Plaentxi bikoteen jarduna... Urtero bezala, gaur iluntzean, Ekialdeko Erregeen eskutik opariak jasoko dituzte eta larunbatean, omenaldi astea bukatzeko, Musika Bandaren eta parrokiako abesbatzaren kontzertuak eta bazkari berezia izango dute, pelikula eta guzti.



Musikeskolako ikasleak Durangon izan zen Euskadiko V. Akordeoi Txapelketan parte hartu zuten. Asier Elustondok hirugarren saria eskuratu zuen A kategorian, eta Mendaroko Maite Zubiaurrek bosgarren postua B kategorian. Bestetik, Arrasaten izan zen Gipuzkoako 95 akordeoi jaialdian fin aritu ziren musikeskolako neska-mutilak. Maitane Mendikute mendarotarrak eta Jon Membrillera elgoibartarrak bigarren geratu ziren hasten ari direnentzako mailan eta Aitor Arrieta lehen postuan, urrezko domina eman ziotelarik. Asier Elustondok eta Maite Zubiaurre sarituak izan ziren oraingoan ere, bigarren postua lortuz. Argazkian diploma eskuetan dutelarik ditugu musikeskolako ikasle sarituak.

■ Odol ateraldia

Hilaren 12an, ostirala, odol ateraldia izango da arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara bitartean Odol Emaileen egoitzan. 18 urtetik gorako herritarrak odola ematera animatu nahi ditu Elkarteak.

■ Batzarra La Unión-en

Datorren asteko ostegunean, hilak 11, La Unión elkarteak urteko batzar nagusia egingo du kirol arloari dagokionean. Biler gaueko 9etan lehen deialdian eta ordu erdi beranduago bigarren deialdian hasiko da. Kirol arloko bazkideei bilerara ager daitezen dei egiten zaie. Halaber, hurrengo ostegunean, hilak 18, elkarteko batzar nagusia izango da sozioentzat ordu eta leku berean.

■ Euskara ordenantzak salatu zituen PPK

Juan Carlos Abianek, PPko zinegotziak, prentsaurrekoan azaldu zuenez, euskarari buruzko ordenantzak “diskriminatorioak” dira. Esate baterako, “elkarteei edo pertsoneri dirulaguntzak ematerakoan euskarari lehentasuna ematea oso fuertea iruditzen zait”. Abianek esan zuenez, “herri elebidun batean bizi gara eta hizkuntza bati lehentasuna emateak elkarbizitza oztopatzen du”. Gainera, PPkoaren hitzetan, “hizkuntzak bultzatu egin behar dira eta ez derrigortu”. Oposaketetan euskarari buruzko azterketa eliminatorioa izatea ere ez du ondo ikusten. Bestalde, Jubilatuen Etxera astean behin podologo bat joatearen alde azaldu zen, “lehen atzera bota zen inbertsio handiegia suposatzen zuelako”. Udalak ezin badu, Diputazioan dirulaguntzaren bat eskatzearen alde agertu zen. Bukatzeko, Udaletxean 3 urtez lanean aritu den Gizarte Laguntzaile baten postua oposaketa bidez finkatzea salatu zuen, “orain arte lanean egon den pertsonak argi utzi du gai dela. Orain, fijo egin beharran, oposaketak ateratzea antzerkia iruditzen zait, azken finean pertsona bera hartuko delako seguruenik”.

Iñaki Gorostiza:

“Gainza adinako futbolari ona izan nahi nuen”

Duela 63 urte San Bartolome kalean jaio zen elgoibartar honek badaki zer den egunkari eta aldizkari artean bizitzea. Izan ere, asko dira Madalako kioskoko mostradore atzean igaro dituen unek. Eta bereziki, abadagune horiek gogorara diezazkigun ekarri dugu

gaur Iñaki gure artera. Negozioez ezezik, sukaldeaz ere badaki zerbait gizonak; gogoko du janaria prestatzea. Goizero-goizero Mintxetara joaten da emaztearekin paseatzera eta arratsaldeetan etxean egotea atsegin du; beti ere emaztearen ondoan.

- Zer dela eta kioskoa?

- Dirua egiteko modu aproposa zela ikusi nabalako; lantegian irabazten nuana baino gehixao irabaz nezakeela pentsatu naban eta nere andriak dagoeneko han lan eitzen zabanez, berari laguntzia erabaki naban.

- Aberasgarria izan al zen esperientzia?

- Bai, oso. Jende asko ezagutzeko aukeria eman zian. Bezero guztiak ezautzen nitxun eta hurbiltzen zianerako, banakixan zer eskatuko ziaten. “Zer... betekua?” esaten niuen.

- Lapurretarik?

- Bai eta dexente gainera. Bada, ordia, lapurreta guztietatik bereziki gogoratzen doten bat. Ordutik atzamar bat gutxio dakat ezkerreko eskuan. Kioskoko nere esperientziarik txarrena izan zan. Gau batean enkaputxatu bat sartu zan. Nik beran gainera salto ein naban eta etzanda gaozela lurrian, tiro bat bota zaban eta atzaparra zintzilik geratu jatan. Erresidentzian atzaparra josten ahalegindu zian, baina... alperrik.

- Zenbat urte mostradore atzean?

-1968an zabaldu naban eta orain dala bost



“Kioskoko esperientziarik txarrena, galdutako hatzamarra”

urte laga. Beraz, 22 urte.

- Nola ikusten da bizitza kiosko barrutik?

- Asko ikusten da, goizeko sei terdietatik eguerdiko ordubixak arte eta arratsaldian berriro. Horrenbeste ordu mostradore atzian, denetik ikusi eta ezagutzen da.

- Saldu al zenuen inoiz zorioneko loteria boleto-rik?

- Bai, bi aldiz. Ez naiz gogoratzen zein urtetan baina 40 milioi eta 400 milioiko premixuak izan zian.

- Eta esker onekoak al gara?

- Bueno, txapan botila bat edo beste erregalatu ziaten nik halakorik ez espero arren.

- Zergatik utzi zenuen kioskoa?

- Andriaren gaixotasuna zala-ta, berakin ordu gehixo egotiarren.

- Gaztetan futbolari ona omen zinen eta 2. mailan fitxatzekotan izan zinen gainera.

- Ez dakit futbolari ona nitzan baina oso gustokua naban kirol hori. 2.

mailan jokatzekotan egon nitzala neurri baten egixa da. Cordobatik etorri jatazen fitxatzeko asmoz baina ni gaixorik nauan eta nere bila etorri bazian ere, beste elgoibartar bat eruan zaben.

- Zein da bizitzak eskaini dizun altxorrik preziatuena?

- Dударik gabe nere andria. 17 urte nitxuanian nere nobixia zen. Oin 63 urte ditxut eta oindik elkarrekin gaoz.

- Atzera joz gero, zer gustatuko zitzaizun izatea?

- Piru Gainza adinako futbolari ona izan nahi nuen. Baina edozerren gainetik gizon ona izatia.

- Ez al zara bada gizon ona?

- Batzuentzat baietz pentsatzen dot baina ez danentzat. Galdetu bestela nere andriari.

- Buruan duzun proiektu bat?

- Jubilazioa, datorren urtian jubilaiko naiz.

- Zure bizitzako etaparik politena?

- Futbolian jolasten izan nintzanekua eta nobixia topau nabanekua.

- Ohera joaten zarenean zertan pentsatzen duzu?

- Lo eitxian; zoriontsu eta lasai bizi naiz.

AMAIA GOROSTIZA



FERISALTSAN

Kalitate handia XIV. Gazta lehiaketan

XIV. Gazta Lehiaketa ospatu zen Gabon Zahar ferian Goiko Errota elkarteak antolatuta. Iaz baino partaidetza handiagoa egon zen, 45etik gora eta kalitate aldetik ere zein baino zein hobea. Epaimahaiak goiz osotan jardun zuen aurkeztutako gazta ezberdinak dastatu eta puntuatzen, ez zuten lan erraza izan. Halere, denentzat saririk ezin egon. Sailkapena honela geratu zen: lehenengo postua Patxi Baskaranek lortu zuen, Barinagakoa berau. Irabazleak 50.000 pta.ko dirusaria jaso zuen. Baskaranek 370 ardi omen ditu eta Euskadiko txapelketan hirugarren saria eskuratu zuen. Elgoibarren ere zer-



Gazta txapelketako irabazlea eta bigarren eta hirugarren sailkatuak.

bait jasotzea espero zuen arren, ez zuen lehenengo saria irabaziko zuenik pentsatu. Bigarren, Idiazabalgo Juan Jose Goiburu izan zen eta hirugarren

saria Joxe Iturbe Garayk eskuratu zuen, arrasatearra. Feriara hurreratu zen jendeak, berriz, Agustin Imazi eman zion gazta politenaren saria.

Gaztazalea al zara?

Rosario Okina
50 urte, etxeakoandrea

Oso gazaizalia naiz eta urtero etortzen naiz. Asko probatu ditxut eta danak oso onak zeuden. Neri erdikuak gustatzen jataz, ez oso fuertia baina oso zozua ere ez. Premixua danek me-rezi dabe.




Nati Garitano
49 urte, administra-
ria

Gaztaia asko gustatzen zait batez ere fuertia dana, asko jateko ez, baina noizian behin oso gustura. Aurten etorri naiz lehenengo aldiz ze beste urtietan lanian egon izan naiz. Probatu ditxutenak oso onak zeuden.



Ignacio Mugerza
27 urte, injinerua

Gaztaia asko gustatzen jata eta danak gainera! Asko gustatzen jataz danak probatzia eta ardua edatia. Saiatzen gera onena zein dan asmatzen baina behin bat jan ezkeru, beste guztiak berdinak dia, danak onak.



Jose Luis Elizburu
56 urte, mekanikoa

Ez naiz oso gazaizalia. Bestientzat mozten nabil eta nik ondiok ez dot bat ere probatu. Esan dabenez oso onak daude danak, jendia behintzat gustura jaten dabil.

Urtea hasteko, f

AZOKAN SARRITUTAKOAK

Barazkiak

1. Pello Rubio, Elgoibar
2. Jesus Artola, Anoeta
3. M.Jesus Mujika, Baliarain

Frutak

1. Antonio Iparragirre, Mutriku
2. Manu Iradi, Hernani
3. Maritxu Bereziartua, Azpeitia

Saltoki onena

Antonio Iparragirre, Mutriku

Herriko onena

Pello Rubio

Sari berezia

(Errezil sagarra)

Maria Etxezarreta, Gabiria

Hegaztiak

1. Javier Quiros, Beasain
2. Xabier Goikoetxea, Beasain
3. M.Carmen Uranga, Hernani

Baserriko oilaskoa

1. Xabier Goikoetxea, Beasain
2. Javier Quiros, Beasain
3. M.Carmen Uranga, Hernani

Kapoiak

1. M.Carmen Uranga, Hernani
2. Carlos Urdanpilleta, Tolosa
3. Nekane Alkorta, Andoain

Gazta

1. Patxi Baskaran, Barinaga
2. Juan Jose Goiburu, Idiazabal
3. Joxe Iturbe Garay, Arrasate

Gaztarik politena

Agustin Imaz, Idiazabal

Basorik zainduenak

Luis Leiaristi, Juaristi baserria



Herriko Onenaren saria Pello Rubiok eskuratu zuen. Dirudienez, produktu biologikoak gero eta estimazio handiagoa du maila guztietan.



Aurten loreen posturik onenari eskainitako saria eman gabe geratu da. Halere, Leku-Ederren lore sikuz osaturiko sorta ederrak ikusteko aukera izan zen. Naturalen freskotasuna ez izan arren, hauek ere benetan apaingarriak dira.



Jakina da 1996ko Kilometroak Elgoibarren izango dela. Egun aproposa zela eta, hauek ere kalera atera ziren hainbat gauza saltzera. Eta, Ikastolako ume talde batek, toberaz lagunduta eta Reginak gidatuta, goiz parte musikaz alaitu zuen.

eriarik ederrena

Jakin ahal izan dugunez, kamioikada oso batek Elgoibartik bueltan joan behar izan zuen toki faltagatik. Toperaino zegoen San Frantzisko buelta guztia eta hegazti benetan bitxiak ikusi ahal izan ziren.



Elgoibarko Zabaleta baserriak 62 kiloko kalabaza erakutsi zuen Ferian. Ortuari bertan hazitakoa, hau baino pieza handiagoa ere lortu izan ditula esan ziguten. Ez da, ez, pisu makala!



Frutarik ederrenak ekartzen dituzte baserritarrek feriarira. Sagar ikusgarriak, kolore biziz jantziak eta pekatuzko mokaduak emateko modukuak. Errezil sagarrak ere ez zen faltan bota.



Hileroko feria mantentzen da. Bazegoen behirik, txahal txikirik, astorik, landareak ere erruz eta askotan ikusten ez diren arren, benetan ederrak ziren hiru zaldi ere bazeuden Plaza Txikian. Haiek zituzten ikuslerik gehien iguruan.



Elizako arkupeak gaztaz beteak zeuden eta jende mordo bat inguruan aurkeztutako gaztak probatzeko asmoz. Udal Aretoa ere antzera egon zen, ardoz bustiriko gazta ezberdinak probatuz eta saria nork eramango zuen jakiteko irrikitan.



Talorik gabeko Gabon Zaharra ezin imajinatu. Plaza Handian eta King-Kong inguruan bazen aukerarik. Geratu gabe jardun zuten lanean taloa egin eta egin eta, halere, jendeak bata bestearen atzetik eskatzen zuen.

Maritxu Loiola:



Aspaldiko ohitura da feria antolatzearena Elgoibarren. Izan ere, 1763. urtean eman zitzaion baimena Udalarri hileko azken larunbatean ganadu feria egiteko. Ordutik hona makina bat urte pasa badira ere, gerra garaian baino ez du aipatu feriak etenik izan. Gabon Zahar eguneko feria aski ezaguna da guztiontzat. Urteko azken larunbata izateagatik ohiko ganadu eta tresneria feria ezezik, barazki, gazta eta hegazti azoka ere izaten da. Maritxu Loiola aspalditik da antolatzaileen artean. Berarekin izan gara feriaren inguruko kontuak jakiteko asmoz.

- Beti izan al da berezia Gabon Zahar feria?

- Beti. Askok eta askok gogoratzen dute nola betidanik izan den aparteko giroa egun horretan. Hasiera batean ganadua baino ez zen egoten baina horren inguruan izugarriko erromeria antolatzen zan eta giro oso ona sortzen zan.

- Beraz, gaur egungo feria nahiko berria da.

- Barazki eta frutarena bai, orain 20 urte inguru hasi zen. Beranduxeago, Goikoerrota elkartek bere gain hartu zuen gazta lehiaketa eta gaur egun oso entzutetsua da toki guztietan.

- Zenbat saltzaile hurrerutzen da urtero?

- Askok baino, halere, ez nahi beste. Barazki saltzaileek metro asko nahi izaten dituzte beraien produktua erakusteko eta denei eskatzen zaiena ematea ez da erraza izaten. Dena dela, oztopoak oztupo, urtero jende asko etortzen da, 100 bat lagun gutxi gora-behera, Euskal Herri osoko jendea izan ohi da.

- Elgoibar zona ezberdinetan banatzen da.

- Bai. Plaza Txiki inguruan ganadua, tresneria eta hegaztiak egoten dira. Plaza Handian barazkiak eta frutak, elizako arkupeetan gazta eta Udaletxe atzean, txakolina, taloa eta beste zenbait produktu.

- Baserritarren eguna al da?

- Baserritarrentzat eta kalentzarrentzat, bientzat. Era batera edo bestera, bi munduak egun horretan elkartzea eta nahastea nahi izaten da. Biak errespetu handiz tratatu behar dira.

- Zertarako egiten dira horrelako feriak?

- Alde batetik Elgoibarrera dirua ekartzen du, komertzioentzat eta tabernarientzat diru sarrera izaten da. Bestetik, gure baserrietako produktuak

ezagutu, ikusi eta erosteko aukera izaten da. Guztia, giro jator batez lagunduta.

- Prezioak nahiko garestiak izaten dira, ez?

- Bai, hala da. Kontuan izan behar da baserritarrek egiten duten ahalegina goizean goiz etorri eta dena prest izateko jendea hurreratu ahala. Bestalde, egun berezia izaten denez, piskat aprobetxatu egiten da, normala den bezela.

- Urteekin kantitatea ezezik kalitatea ere gorantz joan al da?

- Dударik gabe. Eta beste gauza bat gaineratuko nuke. Aurten ezinezkoa izan zaigu baina datorren urtera begira, irailean hasita baserrietara jo eta benetan bertako produktua erakutsiko dutela ziurtatu nahi dugu.

- Zeren falta somatzen duzu?

- Zerbait behar bada, aterpe gehiago da. Zoritxarrez eguraldia enkargatzerik ez dago eta euriak asko aldrebesten du giroa. Bestalde, Udalarri errespetu, sentsibilizaio gehiago eskatuko nioke. Batzuetan iruditzen zait, Feria, bertoko ohiturak, ez direla merezi bezala errespetatzen.

- Hasierako ilusioak jarraitzen al du bizirik?

- Ez da erreza. Lehenengo urtean gauza berria izateak demaseko ilusioa sortzen zuen. Orain, gure ardura eta lana ferriak lortu duen mailan mantentzea da, igotzea zaila bada ere, mantentzea askotan hain zaila izaten da! Hori da gure erronkarik handiena.

- Egun handia izaten omen da.

- Handiena. Egun horretan, urte osoko beste edozein egunetan baino askoz jende gehiago elkartzen da Elgoibarren. Hori garrantzitsua da eta zaindu beharra dago, dagokion errespetua zor zaio.



Aitor Galarraga, 25.
Aurrezki kutxako langilea



Amagoia Ruiz de Gauna, 26.
Gizarte Laguntzailea



Olatz Arriola, 21.
Ikaslea



Alberto Garcia, 30.
Enkargatua

1.000

ELGOIBARKO IZARRA Elkartearen BAZKIDE KANPAINA



Mikel Artola, 19.
Ikaslea



Ane Zabala, 27.
Administrazio Orokorreko Teknikaria

Elgoibarko GAZTERIARI zuzenduriko

MANIFESTUA (III)

(..)

Manifestu hau euskara maite dugun gazteok **ELGOIBARKO IZARRA**ren bueltan biltzeko deia da, Elkarteko bazkide izatera animatu nahi zaituztegu. Besteak beste, eta arrazoiak asko badira ere, ezin baituzue ahaztu euskara zuentzat garrantzitsua bada, zuek ere garrantzitsuak zaretela euskararentzat. Elgoibarko Izarrak behar zaituztela, zuek Elgoibarko Izarra behar duzuen bezala.

Besterik gabe, gure gonbitea aintzakotzat hartuko duzuen esperantzarekin, urte berri on bat desiatuz, aipatu egun eta tokian sinatzen dugu Manifestua.

Elgoibarren, 1996-1-12

Abenduaren 12an, DOHAINIK

banatuko dizuegu BARRENeke harpidedun guztioi.

Elgoibar eta Mendaroko telefono
komertzial guztiak eskura izan ditzazuen.

elgoi**BARREN** astekaria

Arrate Iriondo

Iriondo altzariak
dendako
dekoratzailea



● **Dekoraidazu zure gustura bizitza.**

▶ Armonia beharrezko elementua da, ingurukoekin harreman ona izatea.

● **Zein kolorez margotuko zenituzke Elgoibarko etxeak?**

▶ Horiz, argitasun piskat emateko.

● **Nora bidaiatuko zenuke alfonbra hegalaria batean?**

▶ Egiptora joan nahi nuke berriz.

● **Sofa batean eseri eta bizitza pasatzen ikusiko bazenu, zein izango litzateke lehenengo irudia?** ▶ Nire semearen jaiotza, dudarik gabe.

● **Eta zein garaitan egingo zenuke zapping?**

▶ 1983ko uholdeak borratuko nituzke.

● **Begiak itxita astebete egon eta gero ikusi nahi zenukeen lehen gauza?** ▶ Nire semea.

● **Zer moduz konpontzen zara ispiluarerkin?** ▶ Oso ondo.

● **Ohe biribilik probatu al duzu inoiz?**

▶ Ez eta ez daukat kuriositerik. Ohe handia izatearekin nahikoa dut.

● **Noren koadroa zintzilikatuko zenuke etxeko salan?**

▶ Ez daukat autore berezirik, denetik gustatzen zait.

● **Kurtinak, dekoratzeko ala estaltzeko?**

▶ Dekoratzeko nahiz eta batzuetan estali ere egiten duten, noski.

● **Lehen musua noiz eta non?**

▶ Nor izan zen gogoratzen dut baina mementua eta tokia ez.

● **Elgoibarko txokorik ederrena?** ▶ San Pedro.

● **Eta zeurea?** ▶ Ilearekin geratuko nintzateke.

● **Besteengan miresten duzun birtutea?** ▶ Leialtasuna.

● **Erantzunik gabeko galderaren bat?**

▶ Gaur egun bizi dugun biolentzia ez dut ulertzen. Garai batean zentzua izan zezakeen, gaur egun ez.

● **Zein Errege zenuen gustuko umetan?** ▶ Ez dut gogoratzen.

● **Zer eskatu diezu aurten?** ▶ Osasuna.



● **Eta ikatza ekartzeko ezer ez al zenuen egin iaz?** ▶ Bai seguruen, baina ez zen oso garrantzitsua izango, ez naiz akordatzen eta.

1996**DOINUA:**

Antton eta Maria


Gabonak pasa dira urtea ere berdin (Berriz) orotzapen ugari gauz on ta txarrekin urte berria gogoz behar dugu ekin egin dezagun denok gogotik ahalegin urte berria askoz hobea izan dadin (Berriz)

Olentzero pasa zen etxetik etxera (Berriz) orain hori erregeak badatoz lanera erragalirik gabe gelditu bazera larunbatean dator bigarren aukera Meltxor, Gaspar, Baltasar hirurak batera (Berriz)

**ALBERTO GONZÁLEZ**


MEKANOSA
Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49



modak

San Bartolome 18
☎ 74 08 49

Gabi JATETXEA



- GOSARIAK • PINTXOAK •
(8,30etatik aurrera)
MENU BEREZIAK
MENU TRADIZIONALAK

Urte Berri On!

Nafarroa enparantza. Tel 74 12



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUTAKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak. Donostia eta
probintziako eritetxe zentruetan ere bai.

Santa klara, 16 ELGOIBAR. Telefonoak: (Biltegia) 74 13 27 (Etxekoa) 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01

LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

**ETXEAK, GARAJEAK ETA
LOKAL KOMERTZIALAK
SALGAI**

INFORMAZIOA ETA SALMENTA:
Ubitarte 2 behea. Tel 74 13 33
ELGOIBAR (GIPUZKOA)

Zorionak eta Urte Berri On!



**PREZIO OSO
INTERESGARRIAK**

Plazako Frontoia

■ Plaza Handian edo Foruen enparantzan aurkitzen da. Herriko plaza barroko eta angeluzuzenaren ipar-mendebaldeko angelua osatzen du antzinako frontoi honek. Udaletxeko arkupean jarraipena da eta honekin batera plazaren mendebaldeko alboan dago.

■ Kararrizko harlanduz eraikitako frontoi irekia da, ezkerreko eta frontiseko paretak bakarrik dituelarik.

■ Frontoiak lehen arkuraino 26,70 metro ditu luzeran, 9 m. altueran eta 10,70 m. zabaleran. Alboko harmoraren aurreko aldeko zati baten eta frontisaren gainean sare bat dago eta erdian 1863. urteko data ageri da.

■ Luis Ubitartek, plazako lehen frontoia eraiki aurretik, pelotan jolasteko zerbitzua betetzen zuen paret hiribilduaren ipar aldeko harresi gotortu zatia aipatzen du. Ubitarte jaunak dioenez,

Kalebarrengo harresi zati hau,
Altzola dorretxearen

ondotik San Frantzisko kometurantz zihona, frontoitzat zuten garai hartako gazteek.

■ Lehen frontoia 1750.eko 5ean erabaki zuen eraikitzea Udalak. Frantzisko Xabier Yosu alkateak Domingo Aizpitarrek egindako diseinua eta aurrekontua aurkeztu zituen. Cristobal Elorzak eraiki zuen frontoia 1751ko maiatzaren 22an amaitu zuelarik. Gaur egungo frontoia baino motzagoa zen. Frontisaren gaina harlanduzko bole zegoen dekoratua eta atzean espazio bat hutsik zegoen. Bertatik ibaira jaisten zen eta emakumeek, aintzinatik ur ertzean erropak garbitzen zituzten.

■ Francisco Iberok gainbegiratu zituen frontoiko obrak eta akatsak zituela adierazi zuen. Esan zuenez, hormak ez zeuden zuzen eginak, nahiz eta arriskurik ez zegoen.

PELLO ARRIETA



J. Jose Astigarraga "Porru" (1936-1992)



- Errosario kalean jaio zen 1936ko martxoaren 6an.
- Gaztetatik gustatzen zitzaion atletismoa. Zaletasun horrek bultzatuta, Ego-Toki elkarteko bazkide egin eta ordutik aurrera Mugerza Memorialaren antolakuntza lanetan jardun zuen buru-belarri.
- Oso pertsonaia ezaguna zen herrian eta atletismoaren munduan ere bai. "Porru" goitizenez zen ezaguna elgoibartarren artean.
- Gipuzkoako Atletismo Federazioko arbitro epaile izan zen urte askotan.
- Futbola ere oso gogoko zuen. Club Deportivo presidenteorde izan zen.
- Lanbidez almanenista zen. "El León" etxeko garagardoa eta "La Casera" gaseosak banatzen zituen furgoneta batekin herrian zehar.
- Mendien ibiltzea ere gustatzen zitzaion. Morkaiko elkarteko kideekin makina bat irteera egiten zuen mendira, Pirinio aldera sarritan.
- 1992an hil zen, azaroaren 18an.

 **San Bate 28 74 34 11**

Urte Berri On!

Eguneroko zure taberna

UDA
ELGOIB

MOTZAK

Dominak Ibaikoentzat

Ibaikoek 1986tik 1991ra bitartean jaiotako haurrentzako txapelketan parte hartu zuten joan den hilean Azpeitiko kiroldegian. Ehunetik gora izan ziren klubetako txapelketan. Urrezko domina Ana Estevezek lortu zuen, zilarrezkoa Jon Ander Pascual eta Aitor Gonzalezek eta, azkenik, brontzezkoa honako hauek: Miren Mugerza, Unai Fernández, Josu Tella-bide, Zuhaitz Martínez eta Zuriñe Polo. Hilaren 27an, goizeko 10etan Elgoibarko kiroldegian burutuko da alebinen eta infantilen Gipuzkoako Txapelketa.

Eskalada ikastaroa

Morkaikok antolatuta, eskalada ikastaroa emango da Kiroldegian hilaren 15ean hasita. Interesatuak hilaren 9an arratsaldeko 6etatik 8,30etara bitartean rokodromora joan daitezke.

M. Cruz Ramal, dardoetan Espainiako txapeldun

Mari Cruz Ramal elgoibartarra Espainiako dardo elektronikoen txapeldun berria da. Duela aste batzuk Geronako Caldas de Malavella herrian izan zen txapelketa. Espainiako txapelduna 301 modalitatean izateaz gain, triple mistoetan ere irabazi zuen. Killer izenekoan txapeldunorde geratu zen eta taldeka lehenak. Mari Cruz 92an Espainiako txapeldun izan zen, hirugarren Munduko Txapelketan; 1993an Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen eta brontzezko domina dobleetan. Urte horretan bosgarren izan zen Austrian izandako Europako txapelketan.



Oscar Diez:

"Karkis-en aurkako pikea sanoa dela uste dut"

■ Zenbat urte areto futbolean?

- Bi urte. Lagunekin futbitoan jokatzen nuen baina areto futboleko lehen mailan, modu serioagoan, duela bi urte hasi nintzen. Lehenago Klub Deportiboan jokatu nuen eta jubeniletan utzi.

■ **Euskadiko selekzioan ere izan zara.** - Iaz Teruelen Aragoa eta Nafarroako selekzioen aurka jokatu genuen baina ez ginen sailkatu. Ondo dago, esperientzia berria da eta jendea ezagutzen duzu. Aurten ere jaso dut partidu bat jokatzeke abisua, abenduaren 27an, baina partidua abenduaren 28an zenez, ez nuen sinestu.

■ Futbitoan ere jokatzen duzu.

- Bai, Karkis taldean. Lehenago ere beste talde batzuetan jokatu izan dut baina orain bost edo sei urte hasi nintzen Karkis-ekin. Auzokoak gara denak, lagunak.

■ Karkis-ek izen eskasa dauka zenbaitzuen artean. Egia al da?

- Bai, baina beste eguneko finalean adibidez, jokatzen ari ginela txistuak besterik ez ziren entzuten eta behin partidua amaitu zenean, asko eta asko zorionak ematera etorri zitzaizkidan, beraz... Ez dakit faltsukeria ote den ala zer.

■ **Pike "naturala", hortaz?** - Nire auzoan betidanik izan ditugu futbol aretoko ekipo onak. Beti



egon izan da ribalidatea, beraz, dagoen pikea sanoa dela pentsatu nahi dut.

■ **Istilurik?** - Niri sekula ez dit inork aurpegira ezertxo ere esan. Lehenago batean Kiroldegi parean mutiko batzuek pintada batzuk egin zituzten gure aurka.

■ **Hori serioagoa da.** - Ba bai, xenofobia apur bat badagoela esango nuke, edo inbidia agian.


■ **Gabonetako txapelketan areto futboleko txapeldun geratu zarete.** - Bai, eta iaz ere bai. Gu Indurain bezala, sei aldiz izango gara txapeldun. Urasandin finalera heldu bai, baina ez dugu sekula irabazi. Aurten ez dakit, baina hortxe ibiliko gara.

■ **Zer moduz areto futbolean?** - Nahiko ondo. Iaz igoera faserako sailkatu ginen eta aurten ere hirugarren edo goaz.

■ Igandean krosera joateko asmorik?

- Bai. Hala ere, lehen nire auzotik pasatzen zen eta orain pereza piska bat ematen duen arren Mintxetara igozteak, joateko asmoa daukat.

- Adina: 23
- Oscar ala Chirol? Lagunentzat, Chirol
- 96rako desio bat? Urasandiko txapelketa irabaztea
- Beste kirol bat? Saskibaloia



Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

Baserriko haragietan berezia



Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Errege biharamonean, Mugerza krosaren 53. edizioa

Apartekoa da Ego-Tokiko atletismo batzordeak Patxaran Zoco etxearen laguntzaz, Mugerza Memorialaren 53. ediziorako ekarriko dituen korrikalarien zerrenda. Igandean, hilak 7, munduko kros korrikalari puntakoenek beteko dute Mintxetako zirkuitua, eta eguraldiak laguntzen badu, sekula baino zaletu gehiago hurreratuko dira dudarik gabe munduko onenak ikusteko.

Uterokoa bada ere korrikalari onenak ekartzeko ohitura berritzea, igandean punta-puntako guztiak lehian ikusteko aukera izango da. Martin Fiz munduko marathoi txapelduna, Diego García munduko marathoi txapeldunordea, Alejandro Gómez galiziarra, Carlos Adán, Kamel Ciani Euskadiko kros txapelduna, Jospaht Machuka 10.000 metrotako bosgarren marka onena duen keniarra, Philil Mosima eta Philip Tarus keniarrek eta Portugaletik, Paulo Guerra korrikalari ezaguna eta Dionisio Castro, azken hau Elgoibarre-
ra urtero etortzen dena. Hauek guztiak Mintxetako helmugara lehenak sartzeko ahaleginean ikusteko auke-

ra izango da igandean. Senior emakumezkoen lasterketan Julia Vaquero galiziarra, Estibaliz Urrutia Euskadiko txapelduna eta beste zenbait emakumezko gain, keniarrek ere parte hartuko dute.

Data aldaketa

Aurten sekula baino goizago izango da Mugerza krosa. San Anton inguruan burutzen zen orain arte baina aurten, IAAF deritzonak, atletismoaren erakunde gorenak, urtarilaren 7a egokitu dio Elgoibar-ko lasterketari, nazioarteko kros lasterketen egutegiaren arabera. Dena den, itxuraz onerako izan da aldaketa, puntako korrikalari guztiak Elgoibarren biltzea posiblea izan baita.



■ ■ Sekulako korrikalari plantela dago aurten: Fiz, Garcia, Paulo Guerra, Kimani, Mosima, Machuka... eta emakumeetan beste horrenbeste.

KiROL

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 3 - Zumaiako 5 (Neskak)
Haundi 0 - Zalla 0

AGENDA

Futbola

6, larunbata (Mintxetan)

10,00 Urki - Eibartarrak (2. erreg.)

12,00 Eibartarrak - T. Amistad (Neskak)

13,45 Beti Sutan - Aloñamendi (1. erreg.)

16,00 Elgoibar - Beti Gazte (1. erreg.)

17,45 Elgoibar - Beraun (Jubenilak)

7, igandea

11,00 Mugerza Memorialaren 53. edizioa

17,00 Haundi - Gernika

10, asteazkena

17,00 Urki - Eibartarrak (2. erreg.)

19,00 Gazteak - Segura (2. erreg.)

Pilota

V. San Anton Pilota Txapelketa

5, ostirala, Ikastolako frontoian

22,00

Olaizola/Errandonea -

Etxaniz/Gastezi (Jubenilak)

Larraia - Berasaluze VIII

(Promesak 4,30)

Berrando/Zearra - Goñi/Apeztegia

(Nagusiak)

LASTERKETAK

HASIERA ORDUA ETA DISTANTZIA

11,00 Junior neskak
(3.900 m.)

11,30 Junior mutilak
(6.880 m.)

12,10 Senior emakumezkoak
(5.323 m.)

12,45 Senior gizonezkoak
(10.794 m.)

V. KUADRILEN ARTEKO GABON TXAPELKETA

Hunde Verbotten eta Pedrusko berdinduta geratu ziren lehen postuan



Saria jaso zuten guztiak.



Saskibaloi irabazleak.



Areto futboleko irabazleak.



Kroseko garailea.



Txirrindularitzako irabazleak.



Palako txapeldunak.

Abenduaren 30ean jokatu ziren saskibaloia eta areto futboleko finalak. Kiroldegia jendez gainezka egon zen ez bakarrik finaletan, aurreko egunetan ere bai. "Ikuslego handia bildu da aurten" Kirol Teknikariaren esanetan, "orain arte finalerara joaten zen jendea, baina aurten ostegunetik aurrera jende asko joan da". Dena den, krosa eta txirrindularitza dira jende gehien erakartzen dituztenak.

Aurten herriko kirol elkarteak gehiago inplikatu nahi izan dituzte txapelketan, "saskibaloia, areto futbol, Pilota Eskolakoak eta Lagun Taldekoen laguntza izan dugu arbitraietan eta guzti hori antolakuntzaren onerako izan da". Zerbait negatiboa aipatzekotan "Gurutze Gorriarekiko eta Karkis taldearekiko

jarrera kaxkarrak aipatuko nituzke".

Abenduaren 26tik 30era bitartean luzatu da Gabonetako Kuadrilen arteko Txapelketaren bosgarren edizioa. Guztira 32 talde aritu dira, iaz baino bi gehiago. Konpetizioari dagokionean, 92 partidu jokatu dira guztira eta hauez gain, txirrindularitza eta kros lasterketak. Guztira 650 lagunek hartu du parte txapelketan.

■ SAILKAPEN OROKORRA

- 1- Hunde Verbotten (75 p.)
Pedrusko (75 p.)
- 2- Dinamo Kalimotxo (60 p.)
- 3- Anorthosis (60 p.)
- 4- Atxolin V (55 p.)
- 5- S. Pitxote (55 p.)
- 6- Drink Team (45 p.)
- 7- Apalankatuak (35 p.)
- 8- Karkis (30 p.)
- 9- Peña San Roke (25 p.)
- 10- Comando Tripontzi (25 p.)
- 11- Sanroketarrak (20 p.)
- 12- Txungo Pastel (20 p.)
- 13- Ruffhor (15 p.)
- 14- Zurrakapote (15 p.)
- 15- Kosakos (15 p.)
- 16- Borussia de Dhzomin (15 p.)
- 17- Juventus (15 p.)
- 18- Fuenteobehuna Raiders (10 .)
- 19- Baldarrak (10 p.)
- 20- Eintarch de Dhzomin (10 p.)
- 21- Peña Mak (10 p.)
- 22- Satorrak (5 p.)
- 23- Berrogei moxoloak (5 p.)
- 24- Chicago Chipoto (0 p.)
- 25- Gurutze Gorria (0 p.)
- 26- Alferrak (0 p.)
- 27- P.A.B.E. (0 p.)
- 28- Resto del Mundo (0 p.)
- 29- Coronita Extra (0 p.)
- 30- Rebel Urbi (0 p.)
- 31- Zaharrak (0 p.)

■ KIROLTASUNARI SARIA:

Chicago Chipoto (Neskak)

■ JOKALARIRIK ONENA:

David Conde (Pedrusko)

■ SAILKAPENA KIROLKA:

Palak:

- 1- Hunde Verbotten
- 2- Pedrusko

Txirrindularitza:

- 1- Atxolin V.
- 2- S. Pitxote

Krosa:

- 1- Pedrusko
- 2- Anorthosis

Saskibaloia:

- 1- Drink Team
- 2- D. Kalimotxo

Areto futbola:

- 1- Karkis
- 2- D. Kalimotxo

Oreka kontua

Oreka mantentzea omen da hankaluzeen gainean ondo ibiltzeko sekretua. Hala esan digute Gabonetako oporretan zehar hankapaloen ikastaroa ematen jardun duten Bergarako Kukuma taldeko Mikel Ibarzabalek eta Eider Urratek. Elgoibarko Taupada antzetzaldeak antolatutako ikastaroan 12 lagun hasi ziren, zein baino zein ausartagoak, hankapaloetan ibiltzen ikasteko asmoz, baina Mikelek esan digunez, “belaunean kolpea hartu eta bik utzi egin zuten”.



■ ■ Hasieran hankak lurretik jasotzea ezinezkoa iruditu arren, gero ez da horren zaila.

Lau egunez aritu dira dozena inguru elgoibartar Kukuma kale animazio taldekoen esanetara. Goizetan izan da ikastaroa, San Rokeko Taupadaren egoitzan, hiru orduz egunean. “Zailtasuna badu, baina hankapaloetan ibiltzea ez da aurrez ematen duen bezain gaitza”, horixe da Mikelek dioena, baina oreka mantendu ezinik dabiltzanek beste zerbait pentsarazten dute. “Zerotik hasi dira denak, inork ez zekien ezer, baina hanka bakarrean ibiltzen

eta eskilarak jaisten amaitu dute”. Edozeinek ikas dezakeen zerbait da, “zerbait egiteko esatean, hasieran ezinezkoa iruditzen bazitzaie ere, agindutakoa egiten amaitzen zuten”.

Gaur egun aluminiozkoak dira zankoak. Norberaren oinetakoak kendu eta aluminioari itsatsitako zapatilak jartzen dira. Belaunak gomaespumarekin babesten dira. Zankoak jantzita 80 cm. Hazten da, hau da, lurretik norberaganako distantzia ia metro bat gehiagokoa da.

Zabaleraz 5 bat cm.tako zabalera dauka zankoak. “Oinez berriz ikastea bezala da”. Dena den, lurrera erortzen ikastea dela inportanteena dio Mikel Ibarzabalek, “gezurra badirudi ere, belaunekin erori behar da lurrera”.

Ikastaroan aritu diren gehienak Atxutxiamaika Begirale Taldekoak dira. Ikasitakoarekin eta gomaespumaren teknika zerbait landuz, kale animaziorako zerbait prestatzeko asmoa dutela jakin dugu ikastaroa amaitu eta gero.

Garajeak **salgai** San Roke 12-14an



INFORMAZIOA
ETA SALMENTA:

JUARISTI
bulegoa
Ubitarte 2, behea
Tel. 74 13 33

Urte Berri On!

NURIA LOPEZ

Elgoibartar bat Miss Gipuzkoa txapelketan

Nuria Lopez, 17 urteko elgoibartar gazte honek, Zestoan abenduaren 16an ospatu zen Miss Gipuzkoa txapelketan parte hartu zuen. Oraindik Elgoibarko Institutuan ikasten dabilen arren, hegaldietako azafata izan nahi duela argi dauka. Gaur, bera da gure artean dugun protagonista eta bere esperientziari buruz hitz egin digu.

- Nola sartu zinen modeloen munduan?

- 1995eko maiatzean Donostian dagoen modelo agentzia batera joan nintzen informazioa jasotzeko asmoz, mundu hori gustatzen zitzaidan eta. Joan nintzenean, agentzian zegoen mutilak "Miss Gipuzkoa" txapelketari buruz hitz egin zidan eta parte hartzera animatu ninduen.

- Nolako izan zen txapelketa?

- Lehenengo aurreselektzio bat egoten da eta hor 15 neska aukeratzen dituzte; miss Gipuzkoa txapelketan parte hartuko dutenak. Nik zortea izan nuen eta aukeratua atera nintzen. Abenduaren 16an Zestoan ospatu zen txapelketan hartu nuen parte. Ez nuen irabazi, baina pozik geratu nintzen 15 neska horien artean egotearekin. Miss Gipuzkoa txapelketa irabazi duen neskek Miss Espainia txapelketan hartuko du parte. Ez dago Miss Euskadi aukeratzeko txapelketarik. Probintzia bakoitzak ordezkari bana bidaltzen du.

- Nork irabazi zuen txapelketa? - Sara Jimenok, 21 urteko donostiar batek. 15 nesken artean bera izan zen



epaileek aukeratu zuten neska.

- **Nolako maila ikusi zenuen?** - Fisiko aldetik oso maila altua ikusi nuen. Bestalde, ia partehartzaile guztiak unibertsitatean ikasten daude. Neska guztiak ikasleak ginen.

- Txapelketetan jarraitzeko asmorik?

- Deitzen badidate, kastingera aurkeztuko naiz, baina gero aukeratuta atera behar zara eta ez da bat ere erraza. Hala eta guzti, ez daukat honekin jarraitzeko gogo handirik; ez da nik espero nuena. Oso gogorra da, gogorregia.

- Txapelketan, zeozer arraroa ikusi zenuen?

- Bai, gauza guztietan bezala "entxufismoa" dagoela esan daiteke. Txapelketa baino lehen, denek genekien nork irabaziko zuen.

- Moda munduari etekinik atera dakiok?

- Bai. dena den, orain dela hilabete Neskafe etxeak kasting bat prestatu zuen Donostian iragarki baterako. Aurkeztu egin nintzen eta aukeratua atera ere bai. Gero telebistan ikusi dudanean "txasko" handia hartu dut, ia ez naiz ateratzen eta.

- Zer da mutil batean begiratzen duzuna?

- Argia eta atsegina izan dadila. Berarekin barre egin ahal izatea ere inportantea da.

- **Janaria zaintzen duzu?** - Bai, asko. Baina Gabonetan pasatu egin naiz piska bat, nahiz eta gero gehiago zaindu behar.

JAVI LEON

Jazteko arropa? Erosoa eta elegantea.

Gogokoan dazun artaroa? Uda.

Bainujantzia ala bikini? Bikinia.

Zure neurriak? 90-63-90.

Luzera? 1,73.

Pisua? 56 kilo.

Salerosketak

ESKIAK SALGAI. Dynastar 1,85 m. Tyrolia loturak. Egoera onean. Nordica bota onak (41-42)
☎ 74 18 55 (gauetan)

Suzuki Savage MOTORRA salgai. 2000 km. 650 cc.
☎ 74 02 24 / (908) 77 59 33

ZIBRO KAMIN markako estufa bat saltzen dut. Berria.
☎ 19 16 39

DERBI 75 C.C. trukatua salgai. Egoera oso onean.
☎ 15 04 41

NINTENDO CONSOLA saltzen dut. Bi mando eta Shadow Warriors-a. 5.000 pta.
☎ 74 35 64 Soto

NISSAN PATROLA SALGAI: 6 zilindro, gurpil zabalak, 92. urtekoa. BI-BK. 1.850.000 pta.
☎ 74 07 04 Jon (17,00-20,00 deitu)

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASA PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

Etxebizitzak

Mendaron ETXEBIZITZA BAT SALGAI. Buztinalede plazan. Amueblatua.
☎ 77 05 90 Angel Mari

Pisu bat KONPARTITU nahi nuke Elgoibarren
☎ 74 14 96 Izaskun

BUHARDILA BAT saltzen da Eibarren. Erreformatua. Prezio interesgarria.
☎ 10 11 52 Fernan

ETXE BAT SALTZEN DA Errosario kalean.
☎ 74 37 68

ETXE BAT SALTZEN da DEBAn. Amueblatua. Hondartzatik gertu.
☎ 74 22 83

SANTA KLARAN PISU BAT SALTZEN dut. 24. zenbakia 5B.
☎ 74 32 98

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06 M. Carmen edo Aurora

Lana

Emakume helduak ETXEKO LANAK EGIN EDO PERTSONA NAGUSIAK zainduko lituzke.
☎ 74 32 51 Pili

Egunez edo gauez GAIXOAK ZAINTEZKO PREST dagoen emakumea naiz. Esperientzia daukat.
☎ 74 04 83 (Victoria) 2etatik aurrera

TITULUDUN ERIZAINA, etxeetarako erizain edo praktikante zerbitzuak egiteko prest dago.
☎ 74 02 33 Marta Diego (Erizain diplomatua)

EDERGINTZAN LAN EGITEKO prest nago. Esperientzia daukat.
☎ 74 29 56 Gema

Garajeak

Garaje bat alokatzen da SAN ROKEN, MARRADUNA.
☎ 74 08 05

Garaje bat alokatu edo erosi nahi dut HERRI ERDIAN.
☎ 74 15 73

Garaje ITXI BAT SALTZEN da Arregitorren.
☎ 74 30 81

Garaje bat ALOKAIRUAN HARTUKO NUKE.
☎ 7423 01 Igone

Garaje bat ALOKATZEN DUT, marraduna, San Roken, Aterpe taberna azpian.
☎ 74 30 33

GARAJE ITXI BAT salgai Santa Ana 46an.
☎ 58 40 24 Gaez deitzea hobe

GARAJE ITXI BAT saltzen da King-kong-en.
☎ 74 06 22

GARAJE BAT ALOKATZEN dut Pista beltzean. Marraduna.
☎ 74 21 64

GARAJE ITXIA alokatzen dut San Roken, Telefonika parean.
☎ 74 21 18 (9etatik aurrera)

Bestelakoak

Karitasek BI OHE DAUZKA behar dituenari emateko.
☎ 7415 09

3etatik 4etara asteen 3 ORDU AEROBIC egiten dugun talde bat gara. Tituludun irakaslearekin. Interesatuta bazaude deitu
☎ 74 05 73 9etatik 12etara

ABENDUAN

Hildakoak

- ▶ Julian Lasa, 68 urte (Abenduak 1)
- ▶ Leona Zulaika Arrieta, 93 urte (Abenduak 4)
- ▶ Luis Maria Muruamendiaraz, 49 urte (Abenduak 10)
- ▶ Pedro Zarzuelo De Diego, 73 urte (Abenduak 12)
- ▶ Maria Elena Segundo Del Rey, 32 urte (Abenduak 18)

Jaiotakoak

- Ane González Vázquez (Abenduak 8)
- Arantxa Ferreiro Santolaia (Abenduak 10)
- Amaia Arregi Almenara (Abenduak 12)
- Itsaso Rodriguez Gorostegi (Abenduak 15)
- Iskander López Ruiz (Abenduak 16)

Bi baserritar zapi agertu ziren haurren Olentzeroan. Galdu zituztenak Elgoibarko Izarran aurkituko dituzte.
☎ 74 16 26

Abenduaren 14an URREZKO BROTXE BAT GALDU NUEN Jubilatuetan edo inguruan. Lazo formakoa eta Amadora Martinez izena dauka. Saritu egingo da.
☎ 74 38 24

ZORIONAK SITO!!
Ezin izan dugu motorra erosteko dirurik bildu, halere, ea berrogeitamar urte bete orduko zerbitu lortzen dugun. Bien bitartean ez galdu esperantzarik.
ZORIONAK! BARRENeko nesken eta Elgoibarko Izarraoekin partez.

5 OSTIRALA

18,00 ERREGREEN KABALGATA

✓ Plaza Handian

22,15 ZINEA

"El día de la bestia"

6 LARUNBATA

10,15 BANDAREN KALEJIRA

11,00 BANDAREN EMANALDIA

✓ San Lazaron

11,30 MEZA ERREGE MAGOEKIN

✓ Parrokian

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30 ZINEA

"Operación elefante"

22,15 ZINEA

"El día de la bestia"

7 IGANDEA

11,00 MUGERZA KROSA

✓ Mintxetan

16,30 ZINEA

"Operación elefante"

19,30-22,15 ZINEA

"El día de la bestia"

8 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"El día de la bestia"

9 ASTEARTEA

22 ZINEA

"El día de la bestia"

10 ASTEAZKENA

18,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Kultur Etxean

11 OSTEGUNA

18,30 GRABATU IKASTAROA

✓ Egurren egoitzan (Ubitarten)
Antolatzailea: Egun Arte tailerra
Hilaren 31ra arte

21,00 LA UNIONEKO URTEKO
BATZARRA

✓ La Union elkartean

12 OSTIRALA

16,30 ODOL ATERALDIA

✓ P. M. Urruzuno 8an.

22,15 ZINEA

"Mientras dormías"

txandak

FARMAZIAK:


DATA	EGUNEZ	GAUEZ
6, larunbata:	Yudego	Yudego
7, igandea:	Yudego	Yudego
8, astelehena:	Bidasolo	Bidasolo
9, asteartea:	Bidasolo	Bidasolo
10, asteazkena:	Bidasolo	Bidasolo
11, osteguna:	Bidasolo	Bidasolo
12, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

6, larunbata: DONA MERCEDES

7, igandea: BOUTIQUE DEL PAN

ZineA



El día de la bestia

Zuzendaira: Alex de la Iglesia
Antzezleak: Santiago Segura,
Alex Angulo, Armando De
Razza.

Umore beltza eta akzio satanikoa
lotzen dituen komedia da,
zuzendariaren hitzen arabera.
Deabruaren inbokazioa eskatzeko
sesio batean parte hartu eta gero,
Madrileko Gran Vía-ko Capitol
Hotelaren puntan dagoen
Schweppes etxearen iragarki batetik zintzilikatuko dira azido mordo bat
irensten dutelarik.



Operación elefante

Zuzendaria: Simon Wincer
Antzezleak: Danny Glover, Ray
Liotta, Denis Leary.

1968an, Vietnam-en destinatutako
bost Boina Verdek misio oso
inportante bat burutu behar dute:
hiru toneladako elefante eme bat
350 kilometro oihanetan zehar
eraman. Dak Nhe izeneko herrixkan elefantea beharko dute erritual
baterako. Gauzak bere onetik aterako dira elefantea oihanean zehar
garraiatzen hasten direnean.



XIGORTZE

K O M E R T Z I A L A

KAFE MAKINA
BANATZAILEA ETA VENDING



Kafeak



VENDING ZERBITZUA: Enpresa handi nahiz txikietara

ETXERAKO KAFE
MAKINAK

Superautomatikoa



Filtro presurizatuduna



Kafe ehogailu eta guzti!



San Roke, 7 behea • ELGOIBAR • Tel. 74 34 01